

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

## Prestakuntza-programa batek gizarte-bazterketako egoeran dauden 350 pertsona laneratzen lagunduko du

*Nafarroako Gobernuak 51.000 euro erabiliko ditu ekintza horiek finantzatzeko, eta Gurutze Gorriak garatuko ditu*

Lunes, 22 de septiembre de 2014

Nafarroako Enplegu Zerbitzuko zuzendari-gerente, M<sup>a</sup> Isabel García-k eta [Nafarroako Gurutze Gorriko](#) lehendakari Joaquín Mencos-ek lankidetzaren hitzarmen bat izenpetu dute berriki 350 immigrante edo gizarte-bazterketako arriskuan dauden pertsonen laneratzea errazteko.

Interlabora izeneko programa horrek 185.225,52 euroko aurrekontua du, eta kopuru horretatik 51.300 Nafarroako Gobernuak ematen ditu. Europako Gizarte Funtsak kofinantzatzen du eta Diskriminazioaren Aurkako Borrokaren Eskualde Anitzeko Programa Operatiboaren barnean dago.

Jarduerak langabezian dauden edo lan ezegonkorra duten pertsonentzat dira. Nafarroako Gurutze Gorriak, haiekin harrera, orientazio eta laguntzeko ekintzak egingo ditu enplegua bilatzeko orduan, bai eta bitartekotza-lanak ere enpresekin eta enplegu-eskaintzen kudeaketa.

Programa honen esparruan, 115 pertsonentzako prestakuntza-ikastaroak ere egingo dira; ikastaro horiek honako hauei buruz izango dira: merkataritzako eragiketa osagarriak, hoteletako solairuetako zerbitzaria, sukaldaritza eta tabernako oinarritzako eragiketak, etxeko arreta sozio-sanitaria, informatika-ezagutzak eta funtsezko gaitasunak, beste arlo batzuen artean.



García eta Mencos lankidetzaren hitzarmena izenpetzen.